

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### **Donostiako Udalak hiriko 12 kaletako argiteria berrituko ditu**

*Egungo argiteriaren ordez jasangarriagoa den beste bat jartzeko lanek 313.253 euroko aurrekontua izango dute.*

Donostiako Gobernu Batzordeak onartu du Donostiako argiteria publikoa mantendu eta kontserbatzeko zerbitzuen kontratua aldatzea, hiriko 12 kaletako argiak berritzeko.

Eneko Goia alkateak nabarmendu duenez, “energiaren aldetik jasangarriagoa den hiri baterantz beste urrats bat emateko aukera ematen digun eragiketa da. Gune horietako argiztapenaren ordez led ekipoak jarriko dira, eta horrek ere kontsumoa murrizteko aukera emango du”.

Lau hilabeteko epea izango du berritzeak, eta 313.253 euroko aurrekontua izango du. Kale hauetan egingo da: Konstituzio plaza, (41.411 euro), Berio Pasealekua (32.241 euro), Argentinaren Errepublikak (32.366 euro), Okendo kalea (19.662 euro), Prim kalea (10.539 euro), Miramon (1 gunea -19.602 euro / 2 gunea - 20.211 euro / 3 gunea – 32.423 euro / 4 euro – 36.633 euro), Begiristain Doktorea pasealekua (29.614 euro), Karmengo Ama Birgina kalea (21.187 euro) eta Gabriel Aristi kalea (17.358 euro).

#### **Lurzoruaren kalitatearen azterketa**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du amiantoak lurzoruan eta airean eragindako kutsadura kontrolatzeko eta onbideratzeko kontratua ASBESTHO'S GESTION DES-AMIENTADOS, SL enpresari esleitzea. Lanak egiteko epea 6 hilabetekoa izango da eta aurrekontua 21.080 eurokoa.

#### **Klima-plana**

Tokiko Gobernu Batzordeak Airearen Kalitatearen Plan Klimatiko bat (PCCA) egiteko kontratazioari buruzko espedientea onartu du. Plan horretan, udalerrian Emisio Gutxiko Eremuak abian jartzeko diseinua eta plangintza jasoko dira. Hasierako aurrekontua 40.000 eurokoa da, eta gauzatzeko epea 9 hilabetekoa da, kontratua sinatzen denetik hasita.

#### **Ur-biltegiak**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Oriabenta eta Putzuetako biltegietan edateko ura banatzeko sare orokorrak berritzeko obren proiektua, Ur Ustiapen eta Saneamendu Zerbitzuak idatzia. Proiektuak 785.131 euroko aurrekontua du eta 7 hilabeteko epean gauzatzea aurreikusten da.

#### **Emakumeen etxea**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du EMAKUMEEN JABEKUNTZARAKO DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA elkarteari 46.000 euro ematea 2021. urteko aurrekontutik, zuzeneko diru-laguntza gisa. Diru-laguntzaren xedea da Emakumeen Etxearen helburuen esparruan planteatutako jardueren programa dinamizatu, koordinatu eta bultzatzea.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### **Fabrika**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du ADEGI-GIPUZKOAKO ENPRESEN ELKARTEAri Miramonen egongo den "Fabrika" Enpresen kultura eraldatzeko errendimendu handiko zentroa eraikitzeke lizentzia ematea.

*Donostia, 2021eko urtarrilak 12*